

ARRISKUAK SAHIESTU EVITA RIESGOS

EZOHIKO TXERTAKETA-KANPAINA, MENINGOKOKO A, C, W eta Y GAIXOTASUNAREN AURKA

• Zer da gaixotasun meningokozikoa?

“Meningokoko” izenez ezagutzen den bakterioak eragindako infekzioa da. Gaixotasun honek oso ondorio larriak eragin ditzake osasunean.

• Txertoa:

Gaur egun txerto berri bat dago, meningokoko mota gehiagoren aurka babesten duena; zehazki, A, C, W eta Y-ren aurka.

Txerto injektagarria da, eta dosi bakarrean ematen da.

• Nori zuzendua da ezohiko kanpaina berria?

2001 eta 2007 bitartean jaiotako guztiei, hori baita gaixotasuna transmititu dezakeen populazio-taldea. Segur aski, meningokoko C gaitzaren aurka txertatuta egongo dira pertsona horiek, baina orain txerto berri hau jarri behar dute, babes handiagoa bermatzen du eta.

Txertaketa pixkanaka egingo da, hurrengo hiru ikasturteetan: 2019/2020, 2020/2021 eta 2021/2022.

• Nork jarri behar du txertoa 2019/2020 ikasturte honetan?

2020ko otsailetik aurrera, 2001, 2002 eta 2004 urteetan jaiotako guztiek.

• Non jarriko da txertoa?

> Ikastetxeetan, lanbide-heziketako zentroetan eta unibertsitateetan jarriko da txertoa.

> Ikasten ari ez direnek edo ikastetxean txertatzerik ez dutenek, aurrez hitzordua eskatuta, osasun-zentroan jarri ahal izango dute txertoa.

CAMPAÑA EXTRAORDINARIA DE VACUNACIÓN FRENTE A LOS MENINGOCOCOS A, C, W e Y

• ¿Qué es la enfermedad meningocócica?

Se trata de una infección ocasionada por una bacteria conocida como “meningococo”. Es una enfermedad que puede tener graves consecuencias en la salud.

• La vacuna:

Actualmente se dispone de una nueva vacuna, que protege frente a más tipos de meningococo, concretamente frente al A, C, W e Y.

Es una vacuna inyectable que se administra en una sola dosis.

• ¿A quién va dirigida la campaña extraordinaria?

A toda la población nacida entre los años 2001 y 2007, que es el grupo de población que puede favorecer la transmisión de la enfermedad. Probablemente, estas personas ya estén vacunadas frente al meningococo C, pero ahora deben vacunarse con esta nueva vacuna que garantiza una mayor protección.

La vacunación se realizará de manera progresiva, durante los próximos tres cursos escolares: 2019/2020, 2020/2021 y 2021/2022.

• ¿Quiénes deben vacunarse este curso 2019/2020?

A partir de febrero de 2020, todas aquellas personas nacidas en los años 2001, 2002, 2004.

• ¿Dónde se efectuará la vacunación?

> La vacuna se administrará en los centros escolares, centros de Formación Profesional y en los centros universitarios.

> Las personas que no estén estudiando o que no puedan vacunarse en el centro educativo podrán hacerlo, pidiendo cita previa, en su centro de salud.

